

Genozidioaren ekonomia eten

Koldo SAGASTI

Aste honetan, Espainiako Kongresuko gehiengo zabal batek 53/2007 legearen erreforma aintzat hartzea bozkatu du. Balizko erreforma horrek genozidioagatik ikertutako herrialdeei arma-enbargoa ezartzea ahalbidetuko luke. Nolanahi ere, ekimenari ibilbide luzea geratzen zaio, gauzatuko bada. Parlamentuko batzorde batean eztabaidatu, zuzenketak aurkeztu, eta behin betiko testua adostutakoan, Kongresura bueltatuko da, berriz ere bozkatzeko; eta orduan, agian, Espainiak Israelgo erregimen kriminalari armak saldu eta erosteari utzi beharko lioke. Prozesu luzeegia Palestinan egunez egun zomorroen antzera akabatzen ari diren errugabeentzat. Zergatik ez dute Ministro-Kontseilu batean dekretu bidez onar-

tu eta bihartik aurrera erregimen sionistarekiko arma-merkataritza bertan behe- ra utzi? Errazagoa zatekeen, praktikoa- goa, eta prozedura administratiboak irauten duen bitartean hilko diren mila- ka pertsonaren bizitzak aurreztuko zituz- keten. Parlamentuko ekimen horren atzean Nazioarteko Justizia Auzitegiaren agindu bat dago. Hagako Gorteak, uztailean ka- leratutako ebazpen batean, neurriak exijitu zizkien herrialdeei «Israelek Pa- lestinako Eremu Okupatuetan sortutako egoera ilegalari eusten dioten merkatori- tza-harremanak edota inbertsioak saihesteko». Palestinako kolonizazioa sostengatzen duten harreman ekonomi- koak eteteko agindua arrazoi nahikoa izan bada arma-enbargoa ekar dezakeen

prozedura bat abian jartzeko, zergatik ez dute berdin jokatzeko kolonizazio bera sostengatzen duten beste eragile ekono- miko batzuekin? Iragan martxoaren 9an, Jerusalem, Benjamin Netanyahu gerra-kriminalak ekialdeko kolonia ilegalak hiriguneare- kin lotuko dituen trenbidearen linea go- rria inauguratu zuen. Harekin, orpoz or- po argazkian Mickey Raviv zegoen, CAF konpainiak Israelen duen ordezkaria. Erretratu historiko hark agerian utzi zuen Beasaingo multinazionala lepo- raino sartuta dagoela Palestinako okupa- zioaren azpiegituren eraikuntzan. Izango al dute kontuan lege-proposamenaren egileek? Edo beste behin ere nazioarteko zuzenbide erakundeek ebazpenak ezere- zean geratuko dira? •

Arropa zintzilik

Amagoia MUJICA
TELLERIA

Sanferminetako arropa zuria eta gorria etxeko balkoian zintzilik. Hiru solairuko etxeko fatxadan, hiru balkoietan mezu bera: jaie- tan gaude. Zoragarria iruditu zait 2025eko Iruñeko sanferminak iragar- tzen dituen kartela, Sandra Nadal Vita- len lana. Jaiak bai, zaintza ere bai. Niretzat zin- tzilikatutako arropak horixe iradokitzen duelako, jaietan dabilenak baduela non hartu aterpe oinak nekatzen direnean, ahotsa urratzen denean, jendetasunak gain hartzen dionean. Era berean, jaia auzoarena, herriarena, dela kontatzen didate zintzilikatutako arropak; iruinda- rrek egiten dituztela sanferminak.

Etxe parean zintzilikatutako arropak bizitza kontatzen du, etxe horretan bizi direnen bizitza. Ostiraletan langileen buzo horiak zabaltzen dituzten balkoi horren azpialdetik pasatzen naizenean, asteburuan ondo merezitako atsedena hartuko dutela pentsatzen dut. Barruko arropa txiki-txikiak zabaldu dituzten beste etxe horretan, bizitza be- rri bat kontatzen du jaioberriaren arro- pak. Maindireak zabal-zabal jarri ditu beste horrek baranda osoan, eguzkitan gozo lehertzeko. Kontuan hartzeko lu- xua da goizean eguzkitan zabaldutako maindire garbitu berrietan oheratzea gau horretan bertan. Gure amonak bere kuleroak sukalde ondoko soka batean

zintzilikatzen zituen, ezkutuan bezala, “diskretuago”. Haurrak ginela burua sartzen genuen kuleroen zuloetatik amona zirikatzen. Erratzarekin ateratzen zen sukaldetik ipurdia berotuko zi- gula esanez. Oraindik irriñoa sortzen zait. Orain gure esekitokian zintzilik egoten diren kuleroen tamaina ikusita, amonak zein astakeria esango lukeen gustura entzungo nuke. Hor ere bada belaunaldien arteko talka. Poza eman dit sanferminetako kartel irabazleak, askotan tontakeriak entzu- ten nekatu baitzaizkit belarriak, arropa kanpoaldean zintzilikatzea “antiesteti- koa” dela adibidez. Hori esaten duena- rentzat, bizitza bera da antiestetikoa. •